

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021EKO DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

BIOLOGIA

EPAIMAHAI ZK.:

KALIFIKAZIOA

DEITURAK

IZENA

NANa/ANTa

-
1. Adieraz itzazu landare baten sustraiaren eginkizunak (0,5 p). Idatz ezazu formula batean zer gertatzen den fotosintesian. Zer garrantzi du prozesu honek bizia lurlean mantentzearekin? (0,5 p)

 2. Zeri buruz ari gara zelula batean gertatzen den ITZULPENa aipatzen dugunean? Esan zein organuluk hartzen duten parte prozesu honetan. Zer dira kodona eta antikodona? Zein dira haien osagaiak eta non daude? (1,5 p)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021EKO DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

BIOLOGIA

3. Erantzun ondoko galderak:
- a. Definitu gena eta aleloa. (0,4 p)
 - b. Zer esanahi dute "homozigotiko" eta "heterozigotiko" hitzek? (0,4 p)
 - c. Herentzian nagusi bada begien kolore marroia kolore urdinaren aurrean, begi marroiak dituzten bi gurasok zer aukera dute begi urdineko semeak edo alabak izateko? Argudia ezazu erantzuna eta azaldu zein diren norbanako horien genotipoak eta fenotipoak. (0,7 p)
4. Zer da antigorputz bat? Adieraz ezazu haren egitura. (0,7 p) Zergatik gertatzen dira alergiaak? (0,3 p)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021EKO DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

BIOLOGIA

5. Osa ezazu taula (1 p)

EGITURA/ORGANULU ZELULARRA	EGINKIZUNA	ZELULA EUKARIOTOAN DAGO	ZELULA PROKARIOTOAN DAGO
	Zelula babesa eta substantzien arteko trukea	BAI	BAI
		BAI	EZ
		EZ	BAI
Kloroplastoa			
	Proteinen eta lipidoen sintesia		

6. Ugalketa sexuala eta ugalketa asexuala. Eman bi ugalketak konparatzeko lau alderdi. (1 p)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021EKO DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

BIOLOGIA

7. Erantzun ondoko galderak:

7.1. Tiroidea: zer da? Zein da bere egitekoa? (0,5 p)

7.2. Egin ezazu gizakiaren arnas aparatuen marrazki bat, haren bost osagai aipatuz eta seinalatuz. (0,5 p)

7.3. Azal ezazu nola zirkulatzen duen odolak gizaki baten bihotzaren eta biriken artean eta adierazi norabidea eta odol mota. (0,5 p)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2021EKO DEIALDIA

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-21

BIOLOGIA

7.4. Adieraz itzazu bi nerbio-hartzaile eta eman bakoitzaren adibide bat (0,5 p)

8. Hauta ezazu aukera zuzena gai bakoitzerako (1 p) (Ez da deskontatzen okerreko erantzunengatik).

8.1. Muskuluen uzkurduran bi proteinak hartzen dute parte:

- a) Azetilkolinak eta mielinak
- b) Aktinak eta miosinak
- c) Adeninak eta timinak

8.2. Likido bat mintz erdiiragazkor batean pasatzean gertatzen den difusio pasiboaren prozesua da:

- a) Hidrolisia
- b) Osmosia
- c) Pirolisia

8.3. Ez da lore bateko atala:

- a) Karpeloa
- b) Kotiledoia
- c) Sepaloa

8.4. Lipidoak, funtsean, honako hauek osatzen dituzte:

- a) Karbonoak eta hidrogenoak
- b) Karbonoak eta nitrogenoak
- c) Karbonoak eta oxigenoak

8.5. Ugaztunetan gernua sortzen duten zelulak dira:

- a) Nefronak
- b) Neuronak
- c) Uretrak